

II SORGINAK X.

I ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

- 1 Sorgiak hunkiak dira?
- 2 Nola beldur-arazten dituzte sorginak
- 3 Nor ez da mintzo? Nor mintzatu da gutxiak.

LUIXAK.—Oi zer harritzekoa, egia balinbadiozu!

MARIAK.—Egia? Sinhesten ahal duzue ez naizela jostagura... Eta hainbertzenarekin, berriz ere sekulako azantzak etxe guzian...

XOBADINAK.—Arratoim zombait zintuketen, han, selauran, buruaren gainean.

MARIAK.—(Bixi-bixia:) Bainan, Xobadina, arratoinek ez zuten paper hura...

XOBADINAK.—Hala da hori ere. Ez dakit ori nik!...

Oro ixilik, bultano bat, lancean ari gehientsuak.

JOANNAK.—Ez naiz orai harritzen, hainbertze berri baitabila, egun hautan, herrian.

MARIAK.—Zer berri?

JOANNAK.—Ori, zombait gau hautan guzietan, argi handi ezu harat hunat badabilzala zuen etxe ondoan, hil herrietan, *Errikaxaron* ere bai.

XANETAK.—Gure etxe-ondoan? argiak?

JOANNAK.—Bai, eta gero diote, hil herrietako kurutze handiaren gainetik hegaldatzen ikusi duela *Mibimotxeneko* Mariak, halako bat, erdi gizon, erdi xori, harrigarri itsusia.

KATIXAK.—Bai, eta zer diote oraino? *Erramunttoineko* Piarresi bidera athera zaiola, *Buztingo-errekan*, xaal edo aratxe bat egiazki izigarria. Ahal duen bezala eskapatu da; bainan, gero, etxeratu denean, eta bere gerthakaria kondaturik, begiak, beldurrarekin bezala, harat itzuli dituelarik, xaal itsusi espantagarria ikusi dute berriz Piarresen eta haren ondotik etxeko guziek, han, athe-motzaren gainean, lephoa luze luzea, begi handi batzuekin, begi handi horiek sua zariotela. (*Guziek, beldurrarekin edo alegia, burua itzultzen dute Bordaxuriko athe alderdira.*)

MARIAK.—Ez ahal zaku xaala hemen agertuko, Mahuma Ingumarekin?

XANETAK.—Azken judizioa hurbildua ez othe dugu, ene ama zenak lehenago erraiten zuen bezala? (*Ixil ixila, berriz ere, guziak*)...

BENITAK.—Hots! Joanna, Josepa, Katixa, joanen gira etxera? hamekak eta erdiak ditugu berehala!

JOSEPAK.—Hala hala da, eta lana ere bururatuxea dugu, ene ustez.

JOANNAK.—Bai, eta bertzalde, gauerdik ez ginduzke bidean atxeman behar. Gaur aditu gauza horiek orok nahasi naute arras, eta ez naiz batre nere buruari fida.

KATIXAK.—(*Xutitzean:*) Brrr! hotzez ala beldurrez ez dakit, bainan, ikaran nago ni ere... Goazen!

BENITAK. Gau on, andre Xobadina, Kattalin eta Luixa; bihar arte, Maria eta Xaneta. Ongi zeina zaitze gaur, etxean sartzean! (*Badoazi kanporat, alegia eta etxerat.*)

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. *bahinbadiotzu* 32 *sua zariotela*

33. *ez ginduzke* 34 *nahasi naute*

31 ERRAN. *Conjugaison forte. Indic. Prés.*

- | | | |
|-------------|---------------|----|
| Nik diot | = je dis | ps |
| Hek diok/n | = tu dis | |
| Zuk diozue | = vous dites | |
| Harek dio | = il dit | |
| Guk dioque | = nous disons | |
| Zuek diozue | = vous dites | |
| Heiek diote | = ils disent | |

32. JARIO = *laisser couler, verser.*

Indicatif présent. Obj. singulier

- | | |
|----------------|---------------------------|
| Nik dariot (1) | = je le laisse couler |
| Zuk dariozu | = vous le laissez couler |
| Harek dario | = il le laisse couler |
| Guk darioque | = nous le laissons couler |
| Zuek dariozue | = vous le laissez couler |
| Heiek dariote | = ils le laissent couler |

Indicatif imparfait. Objet singulier

- | | |
|-----------------|----------------------------|
| Nik nariön | = je le laissais couler |
| Zuk zinariön | = vous le laissiez couler |
| Harek zario | = il le laissait couler |
| Guk zinariön | = nous le laissions couler |
| Zuek zinariöten | = vous le laissiez couler |
| Heiek zariöten | = ils le laissaient couler |

Objet pluriel

- | | |
|-------------------|-----------------------------|
| Nik nariyhor | = je les laissais couler |
| Zuk zinariyhor | = vous les laissiez couler |
| Harek zariyhor | = il les laissait couler |
| Guk zinariyhor | = nous les laissions couler |
| Zuek zinariyhöten | = vous les laissiez couler |
| Heiek zariyhöten | = ils les laissaient couler |

(1) *dariyhot* = je les laisse couler.
 Élément pluriel dans Zk après i.